

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoa da gure enpeman berezeroak edukitzea. Negozioaren funtsa beraiek izango direlako. Hortaz, gure enpresa gazteentzat izango da soilik, hamasei urtetik hogeitun bitarteko gazteentzat. Bidaia hau gauzatu ahal izateko, adin txikikoentzat monitore batzuk ezarriko ditugu aukera izan dezaten ekintza guztietan parte hartzeko besteek bezela.



Antolatuko ditugun ekintzak beraientzat bideratuak egongo dira, beraien behar ezberdinak oinarritzat hartuta. Gazteen beharrak kontuan hartu nahi ditugunez, lehengo hortaz arduratuko gara. Galdetegi bat sortuko dugu gazteen beharrak ahalik eta ondoen ezagutzeko, lehenbailen horrekin lanean jarri ahal izateko. Galdetegia sortzean gure sare sozialetan partekatuko dugu gure ingurunean zabal dezaten, ahalik eta gazte kopuru handiena animatu daitezen. Behin galdetegia egin eta partekatuta, galdetegiko emaitzetan zentratuko gara gazteen beharrak ahalik eta hoberen ezagutzera eramateko. Honela gazteen beharrak lortuko genituen.

Gure bezeroak, gazteak izango direnez, bezero hauek ezaugarri nabarmen batzuk dituzte eta horiek gure enpresa bideratzeko orduan kontuan hartu beharko ditugu gure bezeroa erakartzeko. Hauen beharrak kontuan hartzen ez baditugu, gure enpresak ez du behar bezala funtzionatu ez ditugulako bezeroak erakarriko aurrera jarraitzeko.

Hasteko, argi dago gazteen portzenjearen gehiengo batek ez duela lanik egiten beraz ez dute diru haina bidai garesti bat finantziatzeko, hortaz nahiago dituzte prezio eskuragarriak dituzten jarduerak aukeratu garestiak baino. Horregatik esan dezakegu prezioa arretaz begiratzen dutela.



Gainera, gauzak nahiko argi dituzten bezeroak direla iruditzen zaigu, izan ere, bidaiatzeko garaian ekintza konkretu batzuen bila dabiltzatelaz jakitun gara. Hau da, gehiengoek nahiago izango dute festan ateratzea museo bat bisitatzea baino.

Horrez gain, segurtasun handia behar dute bidaiatzeko orduan adin tartean ikusten den bezala, gazte batzuk adin txikikoak izan daitezkelako eta gainera gurasoak edo tutore legalak bidaiaren jakinpean egon beharko dutelako. Hortaz, guk enpresa moduan kontuan hartu beharko dugu gure bezeroen adina haien segurtasuna bermatzeko.

Gazteak direnez, hainbat esperientzia bizitzeko dituzte oraindik. Horren barruan, gehiengoek ez dute beraien kabuz bidai bat antolatzeko aukerarik eduki. Horregatik, guk lagunduko diegu, izan ere, bidai bat antolatzeko garaian hainbat gauza hartu behar dira kontuan eta haien ez jakintasunaren aurrean hainbat soluzio planteatuko ditugu.